



## OSASUN-HEZKUNTZA PAZIENTE ZIRROTIKOARENTZAT

### ASZITISA

Abdomeneko barrunbean likido-erretentzioa izatea da. Horren ondorioz, sabela handitzen da. Batzuetan, zangoak/oinak ere handitzen dira.

#### Zaindu:

- Gernu-kantitatea gutxitzen den.
- Abdomena handitzen den.
- Zangoak, oinak eta, batzuetan, testikuluak handitzen dira.

#### Nola eragotzi hori:

- Gatzik gabeko dieta.
- Atsedean erlatiboa (komeni da ohean ohi baino ordu gehiago egotea, atsedena hartzen egoten denean txiza gehiago egiten delako).
- Bete zure medikuaren jarraibideak, har dezakezun likido-kantitateari buruz.

### DIGESTIO-APARATUKO ODOLJARIO HANDIA

Esofagotik eta urdailetik odola jariotzea da.

- Odol gorri edo beltza duten gorakoak (kafe-ondo modukoak)
- Eginkari gorriak edo beltzak (galipotaren kolorekoak).

Sintoma horietakoren bat hautemanaz gero, joan larrialdietako zerbitzura.

### ENTZEFALOPATIA

Garunean substantzia toxikoak metatzea da.

#### Zaindu beharreko sintomak:

- Geldotasuna hitz egiteko, ibiltzeko, jateko ohiko eran; portaera-aldaketak; etab.
- Egunez lokartzeko joera, eta gauez esna egotekoa.
- Idorreria

#### Nola eragotzi hori:

- Egunean gutxienez 2 aldiz libratzea lortu. Berez ez baduzu hori lortzen, areagotu Duphalac®-en ingesta, beharren arabera, edo jarri Duphalac® enemak, medikuak agindutako moduan.

Duphalac® enemari buruzko informazioa: 2. eranskina.

- Proteina gutxiko dieta.
- Arroz, pasta eta barazki gehiago jatea.
- Esne-, ogi-, haragi- eta arrain-kantitatea murriztea.
- Postrerako, fruta hobe (esnekiak ez)
- Proteinen ingesta eguneko otorduetan banatu behar da.